

## Mendia →

Mendian ibiltzea eta ertzak eskalatzea uztartu ditu Javier Iturritxak 'Aristas y crestas de Euskal Herria' gidaliburuan; kirol eskalada gidetatik nahiz ohiko mendi liburuetatik proposamen desberdina da.

# Euskal Herriko harresiak

Ekaitz Agirre

**H**utsune bati erantzutera dator *Aristas y crestas de Euskal Herria* gidaliburua. Halaxe dio Javier Iturritxak (Mendoza, Araba, 1981), argitalpenaren egileak. Euskal Herriko mendirik esanguratsuenetako hainbatean dauden harresi tenteak gainditzeko eta ertzak eskalatzeko 42 proposamen bildu ditu liburuan. Zailtasun aldetik denetariko proposamenak dira, baina guztiek dute komunean ezaugarri bat: ohiko bideetatik kanpo, ibilia eta eskalada uztartzeko modua dira. «Proposamenetako gehienak Euskal Herriko mendi tontor emblematikotatik bukatzen direla aintzat hartuta, nola egin uko halako aukerari?», dio egileak.

Igoeratako batzuk ezagunak

dira, klasikoak; Txindokiko ertza edo Anbotokoa, esaterako. Ezezagunagoak ere aurkituko ditu irakurleak liburuan. Euskal Herriko mendietan ertz dotoreak badirenaren erakusgarri dira guztiak ere: Costalerako ertza, Peña Altxo zeharkaldia, Peña Karria, Lekandako ekialdeko ertza, Fraileburu, Mugarrako ertza, Urresteri klasikoa, Udalaiz eta Aizkorriko ertzak, Ziordiko esproia, Balerdiko ertza, Mortxe, Zirizako eskaileak, Ezkaurreko ipar-ekialdea, Iparla, Hargibele... Arabako mendietan hasi eta Zuberoako harresietan bukatzen da Iturritxak 112 orrialdetan egindako *ibilibidea*.

Zailtasunari erreparatuz gero, *aniztasun* hitza erabili behar da. Oinez osatzeko moduko ibilbideetatik hasi, eta eskalada bete-beteko proposamenetaraino. Guztiek dute lekua liburuan. Ez da, ordea,



Peña Karriako ertz zorrotza, Araban. 'ARISTAS Y CRESTAS DE EUSKAL HERRIA'

Javier Iturritxa • Mendizalea eta 'Aristas y crestas de Euskal Herria' liburuaren egilea

## «Txindokikoa da izarra, baina Anboto, Palomares... non aukeratu asko dugu»

E. Agirre

Hamasei urte zituela Zeanuritik Gorbealara lehen aldiz igo zenekoa gogoan du Javier Iturritxak. Bi urte beranduago hasi zen eskalatzeko. Orduetik bi jarduera horiek ditu zaletasun, eta horiek uztartuta idatzi du bere ibilbideko eskaladarik luzeena: *Aristas y crestas de Euskal Herria*.

**Aspaldiko asmoa omen zenuen halako gida bat idaztea.**

Mendira joaten hasi nintzenetik nenbilen halako liburu bat idazteko asmotan. Euskal Herriko mendi buruzko liburuak eta kirol eskalada eskolen ingurukoak argi-

taratu izan dira, baina ertzak eta gailurrak biltzen dituen lanik ez. Hutsune bat ikusten nuen, eta hutsune hori bete nahi nuen urtetan bildu dudak informazioarekin. Mendian hasi nintzenean esku artean izatea gustatuko litzaidakeen moduko liburuak beste batzuk izan dezaten nahi nuen.

**Zer erakargarritasun du mendietara ertzetatik igotzeak?**

Mendiko jardueren artean gehien erakartzen nauena da. Ibiltzea gustatzen zait, eta eskalatzea ere bai, eta biak uztartzeko modua da. Kirol eskaladan seguruak jarrita daude hormatan, eta ahalik eta zailtasun graduirik handiena



BERRIA

gainditzeko saiatzea izaten da eskalatzailearen helburua, zailtasuna bilatzea, alegia. Ertzak eta gailurrak igota, berriz, bestelako osagai batzuk bilatzen dira: ibiltzea, tontorrera iristea, paisaiarekin gozatzea, eskalatzea...

**Zer irizpide hartu dituzu kontuan zerranda osatzeko orduan?**

Mendira noan bakoitzean ea ertzik ba ote duen erreparatzen hasten naiz, eta egiteko moduko bat ikusten nuen bakoitzeko hura igotzen saiatu naiz. Eskalatu daitezkeenak biltzea izan dut helburua, ez soilik biderik onenak biltzea. Irizpide nagusia hori izan da, batez ere. Bigarren mailakoren

bat akaso kanpoan geratu da, baina esanguratsuenak bildu ditut. Erakargarria izan dakiok mendizale askori; eskalada bat Txindoki, Beriain, Udalaiz edo Anbotoren tontorrean bukatzea amu saihestezina da.

**Mendizale orentzat moduko liburua al da?**

Denetariko zailtasuna duten ibilbideak bildu ditut. Batzuk ia bere osotasunean oinez egin daitezke, eta bertigorik ez edukitzea da baldintza bakarra; Artzena mendilerrokoa edo Eskameloko ertza dira adibide bi. Gehienetarako, ordea, eskalatzeko oinarriko teknikak menperatzen jakin behar da, eta badira eskalada zailtasun maila handixeagoa dutenak ere.

**Bildutako 42 proposamenen artean ba al da bereziki gomendatuko zenukeenik?**

Txindokiko ertza da izarra, hura xe aholkatuko nuke, batez ere. Mitikoa da, eta gozatzeko denetarik dauka. Baina Palomares, Anboto-